

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2008/13/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko martxoaren 11koa, 84/539/EEE Zuzentaraua, albaitaritza-medikuntzan erabiltzen diren tresna elektrikoaren arloan estatu kideek dituzten legediak hurbiltzeari buruzkoa, indargabetzen duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «DIRECTIVA 2008/13/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008, por la que se deroga la Directiva 84/539/CEE del Consejo, relativa a la aproximación de las legislaciones de los Estados miembros sobre aparatos eléctricos utilizados en medicina veterinaria» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 76/41 de 19/3/2008)

**2008/13/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,**

**2008ko martxoaren 11koa,**

**84/539/EEE Zuzentaraua, albaitaritza-medikuntzan erabiltzen diren tresna elektrikoaren arloan estatu kideek dituzten legediak hurbiltzeari buruzkoa, indargabetzen duena**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

(4) Horren ondorioz, bidezkoa da 84/539/EEE Zuzentarauek indargabetzea.

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak eta, bereziki, haren 95. artikulua aztertu dute,

(5) 84/539/EEE Zuzentarauek indargabetzea dela eta, 2008ko abenduaren 31z geroztik utzi egingo zaio Zuzentarauek horren III. eranskineko adostasun-markaren ereduak erabiltzeari, eta, ondorioz, aplikazio-neurri nazionalak ere indargabetu beharko dira.

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Irizpena<sup>2</sup> aztertu dute,

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

Tratatuaren<sup>3</sup> 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz,

*1. artikulua*

84/539/EEE Zuzentarauek indargabetu egin da, 2008ko abenduaren 31tik aurrerako eraginez.

Honako hauek hartu dira kontuan:

*2. artikulua*

(1) Estatuetakoko legediak eta Erkidegokoa sinplifikatzea oso garrantzitsua dela azpimarratzen dute legediaren hobekuntzari buruzko Erkidegoko politikek, enpresen lehiakortasuna handitzeko eta Lisboako Agendako helburuak lortzeko oinarritzeko elementua baita.

Estatu kideek Zuzentarauek honetan araututakoa betetzeko beharrezkoak diren xedapen legalak, arauzkoak eta administratiboak erabaki eta argitaratuko dituzte —beranduenek ere 2008ko abenduaren 31n—. Xedapen horien testuak Batzordeari jakinaraziko dizkiote berehala, bai eta xedapen horien eta zuzentarauek honen arteko korrespondentzien taula ere.

(2) Kontseiluaren 84/539/EEE Zuzentarauek<sup>4</sup> ezarritako adostasuna ebaluatzeko metodoa ez da beharrezkoa dagoeneko, barne-merkatutarako eta hirugarren herrialdeekiko merkataritzarako.

Estatu kideek xedapen horiek onartzen dituztenean, xedapenok aipamena egingo diote Zuzentarauek honi, edo aipamen horrekin batera azalduko dira argitalpen ofizialean. Estatu kideek aipamen horren modalitateak ezarriko dituzte.

(3) Erkidegoko beste araudi batzuek hobeto berma dezakete barne-merkatuaren funtzionamendua, baita erabiltzaileen eta animalien babesak ere.

*3. artikulua*

*Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeitun egun igaro ondoren jarriko da indarrean Zuzentarauek hau.

Estrasburgon eginga, 2008ko martxoaren 11n.

*Europako Parlamentuaren izenean*  
*Presidentea*  
H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean*  
*Presidentea*  
J. LENARČIČ

<sup>2</sup> 2008ko urtarrilaren 16ko Irizpena —oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu—.

<sup>3</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko azaroaren 29koa —oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu— eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko otsailaren 14koa.

<sup>4</sup> L 300 EO, 1984-11-19ekoa, 179. or. Zuzentarauek hori 807/2003 (EE) Erregelamenduak —L 122 EO, 2003-05-16koa, 36. or.— aldatu zuen azkenekoz.